



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/05/18

**2026ko MARTXOAREN 26AN BASABURUKO UDALAK
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko martxoaren 26an ,arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Julen Beunza, Javier Auza eta Iker Isiegas.

BERTARATU EZ DIRENAK: Mikaela Elizalde eta Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onspena.

Otsailaren 26ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2026/9 alkate ebazpena obra baimena emanaz M^a Teresa Garmendiari Itsasoko 4. Poligonoko 496. Lursailean etxebizitza eraikitzeko

-2026/10 alkate ebazpena obra baimena emanaz Udabeko Arrosarioko Andre Mariaren kaleko 24. Zenbakian erabilera anitzetako eraikina egiteko.

-2026/11 alkate ebazpena obra baimena emanaz Beramendiko 2. Poligonoko 19. Lursailean erabilera anitzetako eraikina egiteko.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROINGOZ
2026/05/18

-2026/12 alkate ebazpena obra baimena Telefonica de España SAU. Orokieta 8. Poligonoko 344. Lursailean riostra berria jartzea.

-2026/13 alkate ebazpena Martxoaren 20ko 2019/31 foru dekretuaren 16. artikuluari jarraiki iharduera EZ KALTEGARRIA aitortzea Gartzarongo 6. Poligonoko 206. Lursailean 50 erlauntz jartzea.

-2026/14 alkate ebazpena Martxoaren 20ko 2019/31 foru dekretuaren 16. artikuluari jarraiki iharduera EZ KALTEGARRIA aitortzea Beramendiko 1. Poligonoko 49. Lursailean 3 erlauntz jartzea

-2026/15 alkate ebazpena onartuz Humus Sapiens S.L enpresak aurkeztutako 7.700 euroko aurrekontua baso babeslearen 2 fasearen proiektua idazteko.

-2026/16 alkate ebazpena onartuz Nicolas Barberena Echarrik aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, NA 8988 AF matrikuladun autoarentzat.

-2026/17 alkate ebazpena onartuz Araitx Lorente Echarrik aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera NA 7445 AX matrikuladun autoarentzat.

-2026/18 alkate ebazpena onartuz Javier Jaunarena Ezcurrak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera 8460 BDM matrikuladun autoarentza.

-2026/19 alkate ebazpena onartuz Bernardo Lazcano Garrok aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera NA 6741 AK matrikuladun autoarentzat.

-2026/20 alkate ebazpena onartuz M^a Luisa Goicoechea Mariezcurrenak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera 5619 BFS eta NA 8450 AP matrikuladun autoarentzat.

-2026/21 alkate ebazpena ez onartuz, Arraratsko kontzejuak aurkeztutako diru laguntza eskaera, eskaeran zehazten den etxebizitzak ez duelako betetzen ordenantzaren 3.2 artikuluan adierazten dena "udalaren babesetik kanpo geratzen da eskatzailearen ohiko etxebizitza iraunkorarekin zuzeneko loturarik ez duena. "

-2026/22 alkate ebazpena esleituz Amets Gardezabal Cañadari Basaburuko baso babeslearen 2. Fasearen azpiegitura obrak egitea, 17.000 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo).

-2026/23 alkate ebazpena esleituz Juan Manuel Arangoa Aguirreri 50 tn egur, 3.750 eurotan BEZ kanpo

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

3.- 2026ko aurrekontua. Behin betiko onespena.

2026ko aurrekontua hasiera batez 2025eko abenduaren 22ko batzarrean onartu zela gogoratzen die alkateak bildutakoek. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1995/2 Foru Legearen 202. Artikulua jarraituz. Urtarrilaren 19ko aldizkarian argitaratu zen eta jendeaurreko epea otsailaren 9an bukatu da. Epe horretan ez dira alegazioak egin.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18

Baina behin betiko onesperako zuzenketa pare bat txertatu ziren aurrekontuak.
Hauek aldaketak.

SARRERAK 1.587.670,00
GASTUAK 1.553.920,00
EMAITZA 33.750,00

Ez dute eraginik aurrekontuaren orekan.

Hortaz bildutakoek ontzat ematen dituzte azken aldaketak eta 1999/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 235. Artikuluaren arabera behin betikoz onartzea erabaki dute 2026ko aurrekontua, aurreikuspenak 1.553.920 eurokoak izanik eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute, aurrekontu xehetuaren informarekin batera.

4.- 2026ko plantilla organikoa. Behin betiko onespena.

2026ko aurrekontua hasiera batez urtarrilaren 28ko batzarrean onartu zela gogoratzen die alkateak bildutakoek. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1990/6 Foru Legearen 235. Artikulua jarraituz. Otsailaren 16ko aldizkaria argitaratu zen eta jendeaurreko epeamartxoaren 9an bukatu da. Epe horretan ez dira alegazioak egin hortaz hasierako onespena behin betikoa bihurtzen da.

Hortaz 2026 urterako plantilla organikoa, behin betikoz onartzeko dagoena, hau da:

2026EKO PLANTILLA ORGANIKOA

ZENBAKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK	HIZKUNTZA PROFILA	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean
02	Zerbitzuanitzetakola ngilea	D	Egonkortze prozesua	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Jardunean
03	Garbiketazerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., 31,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
04	Garbiketazerbitzua	E	Egonkortze prozesua	%15 M.O., %10,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposiziolehi aketa	%23,38 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18

06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposiziolehiaketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edobaliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposiziolehiaketa, egonkortze prozesua	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Jardunean

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%100

LAN KONTRATUDUN FINKOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERBITZU AITORTUEN DATA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardunean	%100
M ^a Paz Etxarri Etxegia	Haur eskolakogarbiketa	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34

Begoña Arano Galarza	Garbiketa	E	2024/12/26	%15,31,38.	Jardunean	%60,50
Aitor Arangoa Mariezkurrena	Garbiketa	E	2025/01/02	%15 %10,76	Jardunean	%60,50
Oier Legarra Beunza	Zerbitzuanitzetako langilea	D	2024/12/26	%12, %42	Jardunean	%100

BEHIN BEHINEKO LAN KONTRATUDUNAK



BASABURUA

Egiaztapen-aseguruko kodea: MDCA AA2U 2KJV 39KU K3W4

2026-03-26 akta - SEFYCU 324482

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

8tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18

Ane Arraras Arangoa	Administraria	C
Jose Antonio Hernández Poblete	Garbiketa	E
Nerea Mariezkurrena Ezkurra	Garbiketa	E
Julen Beunza Arano	Hezitzailea	C

LAN KONTRATATUDUN MUGAGABEAK

Aintzane Andueza Zabalo	Haur Eskolako hezitzailea	C	2021/08/23	%12, %18,52	Jardunean	%100
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12, %3,28	Eszedentzian	%100

Bildutakoek aho batez onartzen dute 2026ko plantilla organikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dute modu xehetuan, goian aipatutako legea kontutan hartuz.

5.- Langabetuen kontratazioa.

Urtero legez udako kontratazioak egiteko izapidetzeak hasi behar dira, alkateak proposatzen die bildutakoek, aurreko urteetan bezala 4 pertsona kontratatze bantoa egitea hiru hilabeteko kontratuekin. Aukeran bi talde egitea ere proposatzen du, lehenik 2 kontratu egin eta hilabete baten buruan edo beste bi langileen kontratuak hasia.

Aukerak ere aurreko urtean jenderik ez zegoelako kontratazio eremua zabaltzea ere proposatzen du alkateak, ondoren zehazten diren udalerririk hartuz :

Irurtzun, Larraun, Basaburua, Ultzama, Imotz, Atetz, Iza, Juslapeña eta Berriobeiti. Aurreko urteetako epeak kontutan hartuko dira kontratazioaldiak egiteko eta urtero egiten diren lanak burutuko.

Hortaz bildutakoek onartzen dute 2026. Urterako langabetuen kontratazioa egiteko prozedurari hasiera ematea, onartzen dute 4 langile kontratatzea 3 hilabeteko kontratuekin maiatza – ekainean kontratazioak hasteko. Onartzen dute bukatzeko langabetuen burutuko duten lanen programa eta diru laguntza eskatzea ere.

6.- NUFK-eko kooperazio funtsari atxikipena

Alkateak irakurtzen du NUFK-ek bidalitako atxikipen proposamena, aipatzen du ze ekintza burutzen diren funtsarekin, adibidez aurreko urtean Danaren kaltetuei 50.000 euroko ekarpena bidali zitzaie, Saharako herriari 2.500 euro eta beste.. urtero egiten diren programen inguruko azalpen memoria bidaaltzen dute udalek ikusteko nola banatu den urteko funtsa. Gainera ere eskaintzen diete udalei erakusketa ibiltari bat funtsaren programekin, jendeurrean egon dadin.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/05/18

Ekarpena 50 eurotik 300 eurorainokoa izan daiteke, hortaz bildutakoek onartzen dute **Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak kudeatzen duen kooperazio funtsari atxikipena ematea eta urteroko ekarpena 300 eurokoa izatea.**

Onartzen dute bildutakoek ere erabaki hau Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federakuntzara bidaltzea.

7.- Zerbitzu anitzetako ordezkapenatarako zerrenda berria.

Deialdia berriro da aurreko urtean egindako zerrendan ez dagoelako ordezkapenak egiteko interesa duen jendea. Imotzen sortu zen beharra martxoan eta aurreko zerrendatik hartu zen jendea baina ez legoke inor gehiago, hortaz zerrenda berria egiteko deialdia prestatu da, aurrekoan oinarrituz baina azterketak eta merituen balorazioa modu desberdinean finkatuz eta azterketak gainditzeko gutxieneko bat finkatuz.

Araitzko udalarekin hitz egin da ere eta interesatuak leudeke parte hartzearekin.. Alkateak irakurtzen ditu oinarriak eta bildutakoek aho bate onartzen dituzte..

Deialdia NAON argitaratuko da eta 20 eguneko epean egongo da jendeurrean eskaerak aurkezteko epean.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute zerrenda egiteko deialdia eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzen dute.

Gai zerrendatik kanpo bi gaia dagoela aztergai aipatzen du alkateak, Euskara Batzordeak sustatutako inkesta soziolingistikoa burutzeko kontratuaren inguruan bata eta Arraratsko 14. poligonoko 319. Lursailerako egiturazko aldaketa hasiera batez onartzeko

Basaburuko euskararen erabilera aztertze inkesta soziolingistikoa

Iker Isiegas Euskara Batzordeko ordezkariak azaltzen die bildutakoei Siadeco enpresarekin kontratua sinatzeko dagoela eta euskara teknikaria arduratua dago gai horrekin, ez dago garbi oraindik pertsona eta telefono nahiko izango diren inkesta burutzeko eta euskara teknikariaren lanpostua apirilaren beetetzeko prozesua abian denez, agian ez du egun dagoen euskara teknikariak lanpostua beteko eta hortaz berriatik etortzen denak ezin kudeatu du 2026an inkesta egitearen egitasmoa. Bildutakoek gaia eztabaidatzen dute eta Siadeco enpresari proposamen bezala ondoren erabaki dena luzatzea adosten dute, 2027an inkesta egitea proposatu behin euskara teknikari lanpostua beteta eta martxan dagoenean, beti ere nahiko pertsona eta telefonoa lortzen badira, enpresak eskatzen zuen lagina osatzeko.

Erabaki hau euskara teknikariari helaraziko dio Euskara Batzordeko ordezkariak enpresarekin hitz egiteko.

Arraratsko 14. Poligonoko 319. Lursailaren egiturazko udal planaren aldaketa. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du Arraratsko 319. Lursailleko jabeak hiri lurra zabaldu nahi duela lursail horetako 945.65 m2 hiru lur izaerara pasatzeko, bertan etxebizitza bat egiteko unitate urbanistikoa sortuz.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/05/18

Aurkeztutako dokumentuan zehazten du hiru aparkaleku sortuko direla horeitako bat publiko bezala utziz eta kalea zabalduko dela lursailaren zabaleran. Udal arkitektoak baietzko txostena egin du eta parte hartze prozesua burutu dela adierazten du alkateak., parte hartze prozesu horretan bileran bat egin zen udalean kontzejua eta lursailaren mugakideekin azaltzeko jabearen egitasmoa eta ez ziren ekarpenik jaso.

Hortaz eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71 eta 77 artikuluen arabera bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Hasierako onespena ematea Arraratsko 14. Poligonoko 319. Lursailerako Francisco Javier Recondo Elizalde sustatutako egiturazko udal planaren aldetari, aipatutako lursailetik 959,65 m2 hiri lur izaera izateko, bertan etxebizitza bat egikaritzeko aukera izateko.

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71 eta 77 artikuluen arabera eta sustatzaileari jakinarazi.

8.- Mozioak.

Ez dago moziarik.

9. - Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Martxoaren 27an burutuko da Latasako frontoian pala eta frontenis txapelketen finala. Ondoren afaria izango da Latasako Biltegian

10.- Informazio orokorra.

-Eskubide Sozialen Departamentutik jaso da eguneko egoitzaren obra bukaeraren txostena. Bertan adierazten dute planoetan jubiloteka agertzen dela eta inolaz ere ezin direla bi erabilerak uztartu ordutegi berdinean.

- Eguneko egoitzarako langileen hautaketa prozesua. Azterketan egin dira eta denek gaituzten zuten. Eskaera aurkeztutakoetatik ez ziren guztiak etorri azterketa egitera eta hutsik geldituko da premiazkoa den zuzendari lanpostua. Hiru hautagai zeuden izen emanda, baina bakarra etorri zen azterketa egitera eta horrek ez du Eskubide Sozialeko Departamentuak eskatzen duen masterra. Aukera emango zaio masterra egitea eguneko egoitza ireki baino lehenagoko epean. Ez bada horrela prozesua berriro hasi beharko litzateke zuzendaria hautatzeko.

- Garraio zerbitzua. Taxi zerbitzua apirilaren 8an jarriko da martxan, Garraio Ataleko enmendakinarekin. Azkenean hitzarmen zuzena sinatuko dute taxi gidariak eta Garraio Atalak eta Nafar Gobernuak zuzenean kudeatuko du dirua.

- PSTD proiektuak apirilaren erdialderako bukatuak egongo dira, lhabengo pasaderaren obrak hasi ziren jada, etxolak jarriak daude.

- Kontzejuen bilera. Aurkeztu ziren 2025. Urteko zirkulazio zergaren ekarpenen banaketa, uraren kontuak eta administrari gastuen zehaztapena. Gainera ere hitz egin





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/05/18

zen kaleen izendegia euskaraz jartzearen aukeraz eta hilabete honen bukaera arte daukate epea kontzejuek adierazteko ze izen jarri nahi duten.

Bukatzeko kontzejuen bilerarekin, adostu zen kontzeju eta udalaren artean, kontzejuak erosiko zituztela desfibriladoreak eta udalak ordainduko zuela urteko mantenimendua..

11. Erregu-galderak

Javier Auzak adierazten du familia batek aipatu diola Ihabengo aisialdi guneko bidean badaudela hainbat adar eta enbor moztuak eta batzuk ere erre kara botariak. Lan hauek Iberdrolak egin zituen kanpotik ekarritako enpresa batekin, hortaz haiei eskatzen du haiei adieraztea adarrak eta beste ongi moztu eta eramateko eta ere Ebroko Konfederaziora jakinaraztea gertatutakoa haien eskumena baia errekan dauden enborrak kudeatzea.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/05/18

